


LARRAMENDI-REN BERREHUN URTEETAN  
(1960 - 1766)



Lantxo honen helburua bikoitza dela aurretik esan behar: Batetik Larramendi-k zituen euskararekiko ideiak azaltzea eta bestetik ideia horien funtzio ideologikoaz apur bat ihardutea. Jakina denez, Larramendi-ren obra Hego Euskal Herriko literatu-

raren hasieratzat hartua izan daiteke. Beraz, eta euskaraz gutxi idatzi arren besteengan piztu zuen zirrarez euskara lantzerantzatu zuen Larramendi-k. Horregatik berak zituen ideiak azaltzeari jakingarri deritzagu.

Lehen bait lehen zera esan behar da: Larramendi-k euskararen izana Tubalismoaren bidez esplikatzen du. Beraz, sentidu honetan tubalista dela ezin ukatu. Baina horrekin batera Larramendi, lehen aldiz, euskaldunak euskaraz idaztera zirikutzen ditu. Ez da, aurrekoak bezelaxe, hitzetan bakarrik geldituko. Haruntzagoa doa, ezpairik gabe, gure jesuita. Honela, gure ustez, bititan bana daitezke bere ideia linguistikoak:

#### **A) Euskara Kanpokoentzat**

Lehen esan dugunez, Larramendi «tubalismoaren» hildotik doa, Garibai, Poza, Etxabe, Henao eta beste askoren bidetik, hain zuzen ere. Berarentzat euskara «empezó a vivir en Babel, en que Dios se lo infundó a Tubal y a su familia que vinieron con ella en España» (Corografía 281 orr.). Beraz Tubalek ekarritako hizkera dugu euskara. Horregatik eta Joan Juaristi-k erabilitako eskemaren arabera (Euskararen ideolojiak), Larramendiren tubalismoa mogimendu honi datzekon ideologia betetzen duela ikusiko dugu jarraian. Izan ere, tubalismoaren autoreen ustetan hauexek dira euskararen karakteristikak:

a) *Aintzinasuna* «Es la lengua más antigua, es la primitiva, es la única y universal que, como venerada y materna se habló en España antes de la venida de Cristo» (Corografía) «Gure euskera ederra lanbiziko hizkuntzetatik dek, „Jainkoak maneatu eta isuri zituen aietatik» (Prologo al Diccionario trilingüe).

b) *Garbitasuna* «Y de que el vascuence es lengua de más arte y primor y de mayores perfecciones y ventajas que las lenguas que saben ellos. El cotejo está hecho con toda claridad y no ha tenido respuesta, ni la tendrá probable y con acierto en contrario» (Corografía 281) «Eta... hitzegiteko ezta munduan gure euskera bezain hizkuntza itsaskorrako, eztiago, gozoagorik» (Aita Mendiburu-ri karta).

Beraz, euskara, Larramendi-ren ustez aintzinakoa eta garbia da. Ez dute beraz kanpotarrek zertan mezipreziatu euskara, bere birtuteak baititu. Halare euskara aurrera atera behar da, euskara ekintzetara eramanez behar da eta euskaraz iharduteko ahalmena beharrezkoa du. Eleiz-gizona den aldetik predikazioan topatuko du Larramendi-k bere kokalekua eta gogorki astinduko ditu sermolari txarrak eta aundikiak. Baina honekin batera bigarren eremura gatoz, hau da, Aita Manuel-ek euskara euskaldunentzat zer izan behar zen azaltzera.

## **B) Euskara euskaldunentzat**

Larramendi esanetatik ekintzetara pasatzen da edo hobero esanda pauso horren oinarriak jartzen ditu batez ere erlijioaren kontuetan. Bere lehenengo axola predikari txarren sermoiak kritikatzeko da. «Ez da lotsagarri, hitzegin behar digutela euskaldunak euskal errietan, ez guziok dakigun hizkuntzan... baizikari hizkuntza arrotzean (Aita Mendiburu-ri karta)» edo «Los que debieron estar más instruidos son los que están menos y los que hablan el vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia. Estos son los eclesiásticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramática que aprendieron del latín» (Corografía 283). Gainera errua ez da, jesuita honen ustez, euskararena haiena baino «Lo peor y lo que no puede tolerarse es que toda la culpa de su ignorancia... se la recargan al vascuence mismo... esto ya no es engaño sino mentira vergonzosa» (Corografía 284). Honetan ere Axular-en hitzak gogoratzen ditugu, «Gero» liburu famatuaren hitzaurrekoan agertzen direnak: «Zeren are bere herrikoen artean ere, ez baitakite batzuek nola eskriba, eta ez nola irakur».

Beraz euskara landu behar digu euskaldunok. Bera ezezik bere eskolako beste guztiak erabiliko dute, horra hor, lekuko gisa Cardaveraz-en obrak «Euskararen berri onak» liburua eta baita ere Mendiburu-ren lan bikaina. Entzun dezagun nola idazten zion azken honi Aita Larramendi-k: «Ekin, bada, ekin, Aita gurea euskerari eta euskeraz icheki, Jainkoaren derabiltzun lan

horri. Uste dezun baino on geiago egingo diozu Euskalerrinari» (Aita Mendiburu-ri karta).

### **C) Larramendi eta tubalismoa**

Larramendi-k euskara tubalismoaren bidez azaltzen duela ikusi dugu: goazen orain tubalismo horrek zeukan funtzio ideolojiko aztertzea eta gure jesuitaren aportazioa ikertzea. Juaristi-k ondo azaldu duenez tubalismoak bere funtzioa bete zuen. Bere bidez euskara mito bihurtzen da eta mitifikatu egiten da. Gizartearen komunikabide arrunta izan beharrean, komunikazio horren objektua da, gaztelera komunikazio horren bidea delarik. Juaristi-ren hitzetan esateko euskararen praktika linguistikoa ukatzen da eta gaztelera nagusitzen da.

Maila orokorrean horrela bada ere, zera esan behar da: Larramendi-ren tubalismoa oso berezia da. Larramendi-k lehen aldiz eguneroko bizitzara eraman nahi du euskara, bereziki pulpitoetara: herri xeheari euskaraz predikatu behar zaio Jainkoaren hitza ongi uler dezan. Beraz, puntu honetan tubalismoa gainditzen du, euskara ez da soilki aintzinatik datorkigun hizkuntza, errealitate bizi bat baizik. Eta errealitate hori aurrera eramateko Aita Manuel-ek bideak jarriko ditu.

Halare, bere euskararekiko ideiak tubalismoaren ingurugiroan dabilzate, giro horretako partaideak dira. Horrela, Larramendi Espainiako monarkiaren barruan kokatzen da. Bere ustez euskaldunak dira monarkiaren biztanle zaharrenak, nobleak eta leialak. Nobletasun hori berezkoa dute euskaldunek, ez erregeek emanda. Eta horrekin lotuta ere, fueroak dute haien berezitasuna gordetzeko eta eurenari eusteko. Beraz, bai politikan eta bai ekonomian arazoizkoak dira euskaldunen fueroak, beren oinarria aintzinatik datorrelako eta betiko nobletasuna izan dutelako. Hau guztiau, defendatzen da Espainiako tronora Borbondarrak heltzen diren momentuan. «Decretos de Nueva Planta»-ren (1713 urtea) bitartez monarkia honen erregeek laster ekingo diote Espainiako lurraldeetako Foruen deuseztapenari. Kontextu honetan ari da Larramendi, jo ta ke, Foruen eta euskararen alde.

Baina tubalismoa monarkiaren aldekoa bazen ere, hizkun-

tzaren kontuan, erabat diglosikoa zela esan genezake. Izan ere, sistema foralaren barruan, erdera zen hizkuntza ofiziala eta zeregin publikoetan erabiltzen zena. Erderaz idazten ziren legeak eta fueroak eta erderaz aritzen ziren Euskalerriko Juntetan, Diputazioan etabarretan herriaren ordezkari aunitz. Beraz, tubalistentzat euskara ederra izan arren erabat bastertzen zuten beren izkribuetan. Bazegoen hizkuntza bat, gohikoa, eta zeregin formaletan erabiltzen zena: gaztelera eta beste bat, behekoa, etxekoa, idatzi ere egiten ez zena, euskara.

Hein handi baten Larramendi-k egocra hau gaindi nahian agertzen zaigu. Diglosia orok ekartzen duen alternatibaren jabea da Larramendi: normalizapena ala sutituzioa. Bide honetan, halare, ez du zoritxarrez jarraituko aurreko gizaldian (XVI mendean) Iparraldean segitu zuten bidea. Ibar-ek bere «Genio y Lengua» liburuan ondo azaldu digunez Larramendi-k bere gramatika eta hiztegia euskaldunentzat egin gabe, kanpotarrei euskararen birtuteak erakusteko egin zituen, eta joera defendatzaile baten sartu zen geroko euskal literaturaren naturaltasuna motelduz.

Gainera Larramendi-ren alegin hauek bere mugak izango dituzte, beti erlijioaren ikuspegitik baitatoz. Honela dio: «Ocasiones hay en que no debe predicarse en vascuence o en la lengua común de todos los oyentes y es en aquellos sermones cuyos asuntos miran a los que mandan» «Lo mismo digo de aquellos sermones cuyos asuntos predicados en la lengua materna de los oyentes causarían más daño que provecho a sus almas» (Corografía 289).

Beraz alde batetik euskalzale eta bestetik euskalzale interesatua: erlijioaren gauzak ongi adierazteko balio baitzaio euskara. Euskarak gainera euskaldunen mundu itxiaren giltza du eta mundu horren itxitasuna ez da apurtu behar, mundu horretan baitaude ohitura onak eta erlijioa. Gainera, lehen esan dugunez euskara «garbia» da. Elementu biak kokatzen dira hemen: «euskaldun fededun» batetik eta euskararen garbizaletasuna bestetik. Biak elkartuko dira Aita Manuel-engan eta iraupen luzea eduki-

ko dute euskal literaturan. Halare eta egia aitortuz ez Larramendi-k eta ez bere jarraitzaileek ez zuten, euskaraz aritzerakoan, kanporako eraikitako garbizaletasun hori erabili eta era natural batez ihardun zuten, kasurik gehienetan, euskaraz egindako izkribuetan.

#### **D) Azkena**

Larramendi tubalismoa gaituz haruntzagoa joan zen, euskaraz lantzeko beharra adierazi zutenean. Bestalde ere «Furo»ek eraikitako munduan kokatzen bada ere berarengan ditugu geroko euskal literaturaren hainbat karakteristika. Bere garbizaletasuna kritikatzeko izan arren bere ondorengo autoreetan ere topatuko dugu.

Halare erabat diglosikoa zen Euskal Herri hartan egoera hori gaituz saiatu zen eta ezpairik gabe Hego Euskal Herriko (eta euskaraz) literaturaren oinarriak jarri zituen.

*Andres Urrutia*